

**Espediente mota: Administrazio kontratazioa.**

**Kontratua:** Hornidura kontratua, prozedura irekiaren bidezkoa.

**RENTING BIDEZKO HORNIDURA  
KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN  
LABURPEN ORRIA  
PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO ESLEIPENA**

**A) KONTRATUAREN XEDEA:**

Kontratu honen xedea zera da: AEBI-MFH BRILLANT 2500, FULL EQUIP marka eta modeluko errazmakina bat (1)en hornidura, FINANTZA-ERRENTAMENDU edo RENTING sistema bidez. Ibilgailu honen matrikulazioa, mantenimendua, aseguruak eta erabiltzeko beharrezko diran betekizunak ere kontratuaren zati dira, kontratistaren kargura. Nahitaezkoa da, mantenimenduak, gurpil aldaketak zein konponketa lanak Bermeoko Udaleko lurretan kokatuta dagoan tailerren batetan egitea, Udal garbiketa zerbitzuan etenaldiak epe laburrenera gitxitzeko asmo bakarragaz.

**B) KONTRATU EPEAK; KONTRATU LUZAPENAK; KONTRATAZIO ORGANOA.**

Kontratu epea: Berrogeita zortzi (48) hilabete.

Kontratu luzapenak: ez da kontratu luzapenik izango.

Kontratazio organoa. Bermeoko Udaleko Osoko Bilkura.

**C) KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratu honen prezioa 175.000,00 € eurokoa da, BEZa kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 28.000,00 € eurokoa izango da.

Prezio honetan, matrikulazio, aseguru, porteak eta aplikagarri diran zerga, tasa edo bestelako gastu guztiak barne aurrikusi dira.

Eskaintzaileek diru kopuru hori hobetu daik. Banatuta adierazi beharko dau zein dan prezioa (BEZ barik) eta zein BEZari dagokion diru zenbatekoa.

**D) NOLA ORDAINDU**

Ordainketak hilerokoak izango dira, eta hileko kuotak, Bermeoko Udaleko Diruzaintzak zehaztutako kontu korrontean domiziliatu eta kargatuko dira.

**E) PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, 30/2007 Legearen 77.2 artikulua xedatu bezala, ezta urteko KPIa ere.

**F) BERMEAK.**

- Behin behineko bermea: kontratuko aurrekontuaren % 1a.

- Behin betiko bermea: Esleipen prezioaren % 5a, BEZ barik.



### **G) ESLEIPEN IRIZPIDEAK. MINUSBALIADUNEN PLANTILAK.**

PREZIOA: Puntuaketaren % 100.

Eskaintzak baloratzekoan, kontratazio honen kargura Udalak ordaindu beharreko kuota, komisioak eta gainontzeko edozein gastu kontutan hartuko dira.

**Prezioa:** Eskaintza bakoitzaren puntuaketa lortzen da, eskaintza baxuena eta baloratzen dan eskaintzaren arteko zatiketarik sortzen dan koefizienteagaz, irizpidean emon daitekezan puntuakaz biderkatuz. Hau da:

$[Ob/OI] \times 100$

Ob: eskaintza baxuena

OI: baloratzen dan eskaintza.

100: prezioagaitik emon daitekezan puntuak gehienez.

Baldintza Plegu honeetako 10. Atalean azadu bezala, kontratu honen esleipenerako, eta 30/2007 Legearen seigarren xedapen gehigarrian arautzen denez, lehenetsuna ezartzen da, minusbaliadun langileen kopurua %2a baino gitxiagokoa EZ diran plantiladun litzitzaileen alde, horrela frogatzen dabenean gaitastun tekniko kreditatzerakoan, beti ere, honeek aurkezten daberen proposamenak, eskaintza hoberenaren terminoak bardintzen badabez, esleipenaren oinarri diran irizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz.

Kontratazio organoak aurreko irizpidea kontratua esleitzeko irizpidetzat EZ dau hartuko.

### **H) BERME EPEA.**

Berme epea, kontratuaren iraupenarena izango da.

### **I) KONTRATUA EZ BETETZEAREN ZIGORRA.**

Baldintza Pleguetako 14. Atalean ezarritakoaz gain, eta 30/2007 legearen 196. Artikuluari jarraituz, zigorrak proportzionaltasunez aplikatuko dira, kontratua EZ betetzeagaitiko zioaren larritasunagaz lotuta.

Errazmakinen mantenimendua eta konponketa lanak Bermeoko Udaleko lurraldeko tailerren batetan egiteko ezinbesteko baldintza ezarri da. Kontratuaren iraupen epean hori ez betetzeak, bermearen exekuzioa ekarriko dau, 88. Artikuluak xedatutakoa jarraituz.



**J) KONTRATISTAREN EZAUGARRI BEREZIAK. GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA, ETA KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.**

Lizitatuzaileek, kontratu honen lizitazio prezio bordinaren besteko kontratuak egin dauzala kreditatu beharko dau, gitxienez lau (4) kontratu azken hiru urteetan.

Baldintza hau betetzen dala kreditatzen dauan txostena, **A gutunazalean** aurkeztuko da parte hartzeko eskariagaz batera.

**K) ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA, EPEAK ETA ORDUTEGIA.**

LEKUA: Administrazio honetako ERREGISTRO OROKORRA (BERH@Z - Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua, Ertzilla kalea 8, 48370 BERMEO –BIZKAIA-).

ORDUAK: 8:30etatik – 14:30etara goizetan, 16:30etik 19:00etara arratsaldeetan martitzen eta eguenatan, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara.

EPEA: Erregulazio armonizatua (Bai/Ez): EZ.

**Ez armonizatuak: 15 egun (BAO-n).**

Kasu guztietan iragarkia publikatzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

**L) BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA.**

Hilabeteko epean gehienez, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Lizitatuzaileei aldaketen berri emongo jakie.

**M) DOKUMENTAZIOA JASOTZEKO TOKIA, EPEAK ETA ORDUTEGIA.**

LEKUA: Administrazio honetako ERREGISTRO OROKORRA (BERH@Z - Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua, Ertzilla kalea 8, 48370 BERMEO –BIZKAIA-).

ORDUAK: 8:30etatik – 14:30etara goizetan, martitzen eta eguenatan 16:30etik 19:00etara arratsaldeetan, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara.

EPEA: eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte.

INFORMAZIOA eta DOKUMENTAZIOA JASOTZEKO WEB GUNEA:

[http://www.bermeokoudala.net/udalaren\\_kontratuak.html?&L=1](http://www.bermeokoudala.net/udalaren_kontratuak.html?&L=1) (euskeraz)

[http://www.bermeokoudala.net/udalaren\\_kontratuak.html?&L=2](http://www.bermeokoudala.net/udalaren_kontratuak.html?&L=2) (gaztelaniaz)

**N) ARGITALPEN GASTUAK**

Administrazio baldintza zehatzen agiriko 21.atalean ezarritakoaren arabera exijituko dira.

Kontratatari kontratu honen publizidade gastuak kitatuko jakoz, gehienez, Estatuko Aldizkari Ofizialeko iragarki baten kostuagaz.

**O) ALDAERAK ONARTZEA.**



Ez da aldaerarik onartuko.

**P) AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA.**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurrekusi da aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura. Bestaldetik, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan, behar adina kreditu jarriko dauz dagokion organoak.

**2008.- 12.500,00€**

Gainontzeko urteetarako, kontratu honek sortutako obligazioei aurre egiteko, aurrekontu partida bat sortuko da konsignazio nahikoagaz.

**Q) TRAMITAZIOA**

Arrunta.

**R) BETETEKO/ENTREGATZEKO TOKIA ETA EPEA.**

Ibilgailuak, Bermeoko Udalean Intxausti kalea 2an edo Udalak horretarako zehaztutako beste egoitzean entregatuko da, esleipendunaren gain eta galorde, eta aparteko kargu barik. Entregetako epea hilabete (30egun naturalak) izango da. Epea jagokon eskabide zehatzaren jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunean hasiko da zenbatzen.

**S) OHARRAK**

Baldintza Plegu teknikoan zehaztutakoak betetzen dirala konprobatzeko, ondorengo agiriak aurkeztuko dira **B GUTUNAZALEAN**:

- a) Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen txostena, deskribapen eta argazkiekaz.
- b) Proposatutako aseguruaren ezaugarriak.
- c) Eskaintza ekonomikoa.
- d) Mantenimenduak eta konponketak egiteko tailerraren datuak, Bermeoko Udaleko lurraldean.

**Eskatutako agiriak aurkezten ez badira, eskaintza ez da kontutan hartuko eta baztertuta geratuko da.**

Langile minusbaliatuei buruzko agiriak ez aurkezteak, hori baloratzeko oinarririk ez dagoala ulertuko da.

**T) HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**

Kontratastaren egoitza Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean kokatuta badago, udalari eta herritarrei jagokonean, aurrez-aurreko hartu emon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz egin beharko dauz. Udalak euskerea baino ez dau erabiliko bere hartu-emonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.



**U) SAIL SUSTATZAILEA**  
Zerbitzu saila

Bermeon, 2008ko irailaren 29an.  
Kontratazio Organoa.



**Espediente mota: Administrazio kontratazioa.**

**Kontratua:** Hornidura kontratua, prozedura irekiaren bidezkoa.

**RENTING BIDEZKO HORNIDURA KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-  
BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK  
PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO ESLEIPENA**

**I.- KONTRATUAREN EDUKINA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren xedea laburpen orriaren **A) atalean agertzen dana.**

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

**2. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA**

Hornidura egiteko epea **laburpen orriaren B) ATALEAN** agertzen dana.

Hornidurak epe horretan egiten ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

Hornidura kontratuaren luzapena edo luzapenak (lege berriak ez du luzapenei dagokienez mugarik ezartzen) kontratazio organoak erabakiko du/ditu eta nahitaezkoa izango da esleipendunarentzat, beti ere, kontratuan kontrakoa jasotzen ez bada.

\*Kontratuaren iraupena (luzapenak barne) 4 urtetik gorakoa dan kasuetarako, kontratazio organoa Osoko Bilkura izango da.

**3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratu honen prezioa **laburpen orriko C) ATALEAN** agertzen dana izango da.



\*Kontratuaren prezioa (luzapenen prezioa barne) Udalaren aurrekontuaren errekurtso arrunten %10a baino handiagoa bada, kontratazio organoa Osoko Bilkura izango da.

#### **4. FINANTZIAZINOA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura.

Espedientean diru kopuru horreek noiz ordainduko diran azaltzen da, baita ekarpenak oso-osorik erabil daitezkezala ere.

#### **5. NOLA ORDAINDU**

Ordainketa modua **laburpen orriko D) ATALEAN** agertutakoa izango da.

#### **6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Prezioen berraztertzea **laburpen orriko E) ATALEAN** agertutakoa izango da.

Prezioen berraztertzea onartzen danean, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 78 – 82. artikuluen arabera egingo da. Aplikatuko den berraztertze-formula zehaztuko da.

#### **7. BERMEAK**

Bermeak ezartzen diranean, **laburpen orriko F) ATALEAN** agertutakoan izango dira.

Bermeak ezartzen diran kasuetan ondorengoak izango dira kontutan:

Behin betiko bermea eskatzen danean, esleipendunari esleipena jakinarazten zaionetik 15 egun balioduneko epean, behin-betiko esleipendunak behin betiko bermea sartu beharko du Udaleko Diruzaintzan, hau da, esleipen prezioaren %5 + BEZ.

Kontratuaren epea amaitzen denean, berme hori esleipendunari itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude.

Behin-behineko bermea eskatzen bada, hori lizitazio prezioaren %3 arteko



zenbatekoa (BEZ kanpo) izango da. Berme hori kontratuaren behin-betiko esleipena egin ondoren ofizioz itzuliko zaie lizitatzaillei.

## 8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Hornidurak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## 9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Hornidurak egiten jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harreman, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

## 10. - ESLEPENERAKO IRIZPIDEAK.

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 134. Artikuluak xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira, baita hartzen dan erabakiaren hastapena ere.

Esleipen irizpideak zeintzuk diran, **laburpen orriko G) ATALEAN** agertutakoak izango dira.

Kontratu honen esleipenerako, eta 30/2007 Legearen seigarren xedapen gehigarrian arautzen denez, lehentasuna ezartzen da, minusbaliadun langileen





kopurua %2a baino gitxiagokoa EZ diran plantiladun lizitatzailen alde, horrela frogatzen dabenean gaitastun teknikoa kreditatzerakoan, beti ere, honeek aurkezten dabenean proposamenak, eskaintza hoberenaren terminoak bardintzen badabez, esleipenaren oinarri diran irizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz.

Bestalde kontratazio organoak aurreko irizpidea kontratua esleitzeko irizpidetzat hartu dezake (“condición especial de ejecución del contrato”) eta beraz, derrigorrezkoa izatea. 102. Artikuluan arautzen da. Aukera hau, **laburpen orriko G) ATALEAN** agertutakoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epearen azken egunean, bere plantilan daukien minusbaliadun langile kopurua izango da kontutan, lehentasun hau aplikatzerakoan, eta VII. Eranskinaren aitortpenaren bitartez kreditatuko da. Lizitatzailak aipatutako aitortpen agiria edota eskatutako datu guztiak aurkezten ez badau, ez jako lehentasun hau aplikatuko, %2ko minusbaliadun langile kopurura heltzen EZ dala ulertuko dalako efektu guztietarako, eta ezin izango dau inolaz ere akats hori zuzendu.

Aldi baterako enpresa elkarteetan edota hainbat lizitatzaille aldi batera partehartzen badabe, lehentasun hau aplikagarri izango da, langile minusbaliatuen kopuruak aipatutako indizea gainditzen dabenean plantilak daukiela ulertzen danean, kontratuan lizitatzaille bakoitzaren parte hartzearen proportzioan.

## **11. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.**

Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

## **12. KONTRATUA ALDATZEA**

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, behar berriak edo ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 272. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.



### 13. BERME-EPEA

Berme-epe bat aurreikusiko balitz **laburpen orriko H) ATALEAN** jasoko litzateke, eta epe horretan akatsak egongo balira, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak 274. Artikuluan xedatutakoa aplikatuko litzateke.

### 14. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

#### A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko (196. Artikulua).

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeke.

#### B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezi honeen **laburpen orriko I) ATALEAN** aipatzen diren zigorrak ezartzea (196.7. Artikulua).

### 15. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 206 eta 275. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Kontratua amaitzearen ondorioak 276. Artikuluan aurreikusten direnak izango dira.

### 16. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea,



Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA**

### **17. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA**

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 141 eta 134. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

### **18. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**

**Laburpen orriko J) ATALEAN** zehaztuko dira arlo honetarako eskatutako baldintzak.

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen teknikoa eta ekonomikoa frogatzen badituzte, eta kontratatze debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 64 eta 66 artikuluetan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jardura nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

### **19. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Kontratazio honen espedienteak, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, **laburpen orriko K) ATALEAN** agertutako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da.



Aurkezteko epeak dirala eta, erregulazio armonizatura lotutako kontratuetan, orokorrean, berrogehi ta hamabi (52) eguneko epea gitxienez, iragarkia DOCEn argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita (art. 143.1). Epe hau berrogeita zazpi (47) egunetara gitxitu daiteke, informazioa eta pleguak web bidez jaso ahal diranean.

Erregulazio armonizatura lotuta EZ dagozan kontratuetan, epea hamabost (15) egun, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita (143.2 Art).

Proposamen horiek adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, bi kartazalen barruan itxita. "A" kartazalean honako hau idatziko da:

"A KARTAZALA: .....HORNIDURAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Horretan ondoko agiriak sartuko dira:

\*30/2007 legearen 72. artikuluen arabera eta 73. Artikuluan xedatutakoaren kalte barik, Estatuko edo Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizial batetan inskribatuta badago, behean aipatutako dokumentazioaren ordezkari haurkeztu beharko da:

- Estatuko edo Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitorpena **(IV. Eranskina)**.

\* Estatuko edo Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta EZ badago ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, behinbetiko esleipena egin orduko, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalardea.

b) Lehiatzailea persona juridikoa izanez gero:

- Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
- Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.



- Arduradunaren NAN.
- c) Kontratatzeke debekurik ez duela aitortzea **(II Eranskina)**.
- d) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
- e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
- f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala **(VI. Eranskina)**. \* Enpresak sailkatze betebeharra badauka, sailkatzearen ziurtagiriak kaudimena ordezkatzeko du.

Sailkatzea ondoko kasuetan derrigorrezkoa da:

Obra kontratuetan prezioa  $\geq 350.000$  €  
Zerbitzu kontratuetan  $\geq 120.000$  €

- g) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena **(V. Eranskina)**. \*Enpresak sailkatze betebeharra badauka, sailkatzearen ziurtagiriak kaudimena ordezkatzeko du. Sailkatzea ondoko kasuetan derrigorrezkoa da:  
Obra kontratuetan prezioa  $\geq 350.000$  €  
Zerbitzu kontratuetan  $\geq 120.000$  €
- h) Eskatzen bada, indarreko empresa-sailkapenaren ziurtagiria.
- i) Udalaren diruzaintzan behin-behineko bermea eman izanaren frogagiria.
- j) Beste edozein agiri, baldintza pleguko laburpen orrian agertu bezala.

“B” kartazalean ondokoa idatziko da : **“B KARTAZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA”**. Horretan ondoko agiriak sartuko dira:

**Proposamen bakarra**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren **I.Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.

Ez dira onartuko proposamen hauek:



- k) Kontraesanak, ez aipatzea, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
- l) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- m) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
- n) Proposamenaren zenbatekoan errore argia dutenak.
- o) Pleguaren **I. Eranskin** gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
- p) Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.
- a) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.
- b) Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorrak izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.
- c) Dokumentazio Teknikoa: Lizitzaileek orrialdeak zenbatuta dituen dosierrak aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko baloratuko diren irizpideei buruzko alderdi oro.
- d) Baldintza plegu honen laburpen orrian agertutako beste edozein agiri aurkeztuko da gutunazal honetan.

## **20. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (144.1. Art), Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) sailkatuko dau, eta, dokumentazio horretan akats materialak somatuz gero, hiru laneguneko epea emango deitso lehiatzaileari akatsa zuzen daian.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendaurrean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean, eta, "A" kartazalean egon ahal izan diran akatsak zuzendu eta gero. Telefonoz edo faxez emongo jake aurretiaz horren barri lehiatzaileei.



Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazino mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazino Organoari pasako deuto esleipen proposamena.

## **21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Behin-behineko esleipena, **laburpen orriko L) ATALEAN** agertutako epean egingo da, hilabeteko epean gehienez, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Behin-behineko erabakia lizitatzaleei jakinaraziko zaie. Horrez gain, web orrialdean eta horrela bajagoko, BAOn edo legeak exijitutako aldizkari ofizialetan publikatuko da.

Behin-behineko esleipenaren erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita 15 egun balioduneko epean, behin-behineko esleipenerako proposatuta dagoen lehiatzaileak honako hauek egin beharko ditu:

- a) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.
- b) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- c) Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta zuinketa-akta izenpetzeko.
- d) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Kontratua 10 egun balioduneko epean formalizatuko da, behin-betiko esleipena jakinarazten den eguneko biharamunetik zenbatzen hasita.

Aurreko epea igarota, behin-betiko esleipena egingo da, hori web orrialdean publikatuko delarik. Kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, behin-betiko esleipena BAOn ere publikatu beharko litzateke.

Kontratuaren behin betiko esleipena behin-behineko esleipendunari egitea ez denean bidezkoa, ez dituelako horretarako beharrezko baldintzak betetzen, beste lehiaketa bat egin aurretik, administrazioak, behin-behineko beste esleipen bat egin ahal izango du hurrengo lehiatzailearen edo lehiatzaileen alde, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera, betiere hori posible bada eta esleipendun berriak adostasuna agertu badu.





Kasu horretan, esleipendun horri hamar laneguneko epea emango zaio aurreko ataleko bigarren paragrafoan adierazitakoa bete dezan.

Prozedura hori erabili ahal izango da erregulazio armonizatuari lotuta ez dauden kontratuen kasuan ere, hasitako kontratu bat betetzen jarraitzea bada kontua eta kontratu hori ebatzitzat adierazia izan bada.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

Kontratua formalizatzeak sortzen dauzan gastuak eta zergak esleipendunaren kontura izango dira.

Lizitazioa **60.000,00** eurotik gorakoa daukien kontratuetan, esleipendunek, kontratua formalizatu aurretik eta behin betiko bermeagaz batera, publizidade gastuak ordaindu izanaren ordainagiria aurkeztu beharko dabe, aurkezten jaken likidazioaren arabera.

Kontratistari kontratu honen publizidade gastuak kitatuko jakoz, gehienez, Estatuko Aldizkari Ofizialeko iragarki baten kostuagaz. (RD1098/2001 art.67.2.g)

## **22. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA**

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabaki hori kontratua *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, behin-behineko esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.





Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala”.

### **III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **23. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

#### **24. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA**

30/2007 Legearen 37. Artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak, harmonizatutako erregulazioaren mende dauden kontratuen esleipen prozeduretan hartzeko, subentzionatutako kontratuak, II. Eranskinen 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 206.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, artikuluko honetan arautzen den kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira. 97. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emango.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira behin-behineko esleipen akordioak, lehiaketa arautzen duten baldintza agiriak eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituztenak, eta aurreko prozeduran hartutako tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute.



Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientea egitea dagokion organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango diete interesdunek, zuzen dezaten, eta behin-behineko esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten dieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsoa beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsuaren xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek eta, edozein kasutan, lehiatzaileek.

Autonomia erkidego bakoitzeko arauak ezartzen dutenaren kalterik gabe (eta edozein kasutan, administrazio bidea agortzen duten erabakiak emango dituen organo batek izan beharko du eskumen hori), errekurtsu berezia ebazteko eskumendunak izango dira: kontratazio organoa administrazio publiko baten kontratuak badira, edo erakunde kontratatzailea atxikita dagoen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko burua edo haren zaintza daukana, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Azkeneko kasu horretan, erakunde kontratatzailea administrazio batekin baino gehiagorekin lotuta dagoenean, kontrol edo partaidetza nagusia daukanari dagokion organoa izango da eskumenduna.

Kontratu subentzionatuei dagokienez, eskumena izango du subentzioa eman duen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko titularrak, edo subentzioa eman duen erakundea atxikita dagoenekoak, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Sektore publikoko subjektu desberdinetako subentzioak dauden kasuetan, zenbateko handieneko subentzioa kontuan hartuta zehaztuko da eskumena eta, zenbateko berdinetan, lehenengo eman dena kontuan hartuta.

Kontrako berariazko zehaztapenetan izan ezik, kontratazio arloko errekurtsu berezia ebazteko eskumena kontratatze eskumenarekin batera eman dela ulertuko da. Hala ere, kalteen ondoriozko kalte-ordainak ezartzeko ahalmena ezin izango da eskuordetu, eta horren gainean, edozein kasutan, organo esku ordetzailleak ebatzi beharko du. Eragin horietarako, kalte-ordain bat onartzea bidezkotzat joz gero, espedientea organo eskuordetzailleari igorriko zaio, eta hark, aurretiaz eta berariaz eskumenak bereganatu beharrik gabe, dagokion errekurtsuaren gainean ebatziko du.

Kontratazio arloan errekurtsu berezia ezartzeko epea hamar lanegunekoa izango da, aurkaratutako ekintza jakinarazten edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera zenbatuta. Errekurritutako ekintza kontratuaren behin-behineko esleipena bada, epea zenbatuko da ekintza hori egunkari ofizial baten edo kontratazio organoaren kontratatzailearen



eskakizunetan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, 135.4 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Errekurtso idazkia kontratazio organoaren erregistroan aurkeztu beharko da, edo errekurtsoren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Kontratuaren esleipen prozedura 96. artikuluan aurreikusitako premiazko bidetik tramitatzen bada, errekurtsoa aurkezteko epea zazpi lanegunekoa izango da, eta akatsak konpontzekoa bi lanegunekoa.

Errekurritutako ekintza behin-behineko esleipena bada, kontratazio espedientearen tramitazioa bertan behera geratuko da errekurtsoa berariaz ebazten den arte, eta, beraz, ezin izango da behin betiko esleipenik egin ez kontratua egin. Hala ere, errekurtsoa enpresaburu batzuek, kopuru mugarik gabe, parte har dezaketen esparru akordio baten behin-behineko esleipen ekintza baten kontra ezarri bada, ebazpena emateko eskumena daukan organoak bertan behera geratzea altxatu ahal izango du errekurtsoa aurkeztu denetik bost lanegun igaro eta gero.

Errekurtso bat aurkezten bada, horren berri emango zaie gainerako interesdunei, eta bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsoen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekurtsoren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die. Edozein kasutan, errekurtsoa jarri zenetik hogeitau lanegun igaro badira eta ez bada ebazpenaren berri eman, interesdunak ez onartutzat jo ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko eraginetarako, berariazko ebazpena emateko betebeharraren kalterik gabe eta, hala badagokio, berariazko ebazpena ematen den bitartean, 7. atalean ezarritako bertan behera geratzea altxatu gabe.

Errekurtsoren ebazpenak errekurtsoa edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartutzat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebaztuko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan,



kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzera eraginaren gainean edo prozedurako arau-haustearen ondorioz kalteak jaso dituzten pertsonen kalte-ordaina ematearen gainean ere.

Errekurtsoaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 135.4 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

## **25. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Bermeon, 2008ko irailaren 24an.



## I ERANSKINA

### Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,  
..... Helbidearekin eta .....  
zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo .....  
Helbidea eta ..... IFZ daukan .....  
izeneko enpresaren ordez,

#### AITORTZEN DUT:

- I.- .....  
xedeak daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.
- II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.
- III.- Ordezkatzen dudako enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.
- IV.- Aipatutako kontratuaren betearazpena .....(zenbakitan/hitzetan) Eurotan, BEZ kanpo, proposatzen dudala. BEZari dagokion zenbatekoa .....€koa (zenbakitan /hitzetan) izango dala.
- V.- Mantenimendu eta konponketa lanak, Bermeoko Udaleko lurraldeko ondorengo tailerrean izango dirala:

IZENA:  
HELBIDEA:  
TELEFONOA:

Bermeon, 2008ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



## II ERANSKINA Zinpeko Aitorpenaren Eredua

Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin,  
..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordez,

### KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. Artikuluak ezartzen dituen debekuetatik bat bera ere ez duela.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2008ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



### III ERANSKINA

#### Lizitatzailleek betetzeko inprimakia

#### ENPRESAREN DATUAK

##### 1. Enpresa indibiduala

Izena:

NAN:

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

PK:

Erregistratutako merkataritza- izena:

.....ko Merkataritza Erregistroan

..... datan inskribatuta.

##### 2. Gizarte-enpresa:

Izena:

IFZ:

Eratze-data:

.....ko Merkataritza Erregistroan

..... datan inskribatuta.

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

Ondorengo giza-eskiturak:

#### IZENA

1. Aldatzea

2. Handitzea

3. Beste batzuk

#### DATA

...../...../.....

...../...../.....

...../...../.....

##### 3. Ahalduna:

Izena:

Ahalordetze-eskitura :

- Data :

- .....ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.

Bermeon, 2008ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:



**IV ERANSKINA****Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko edota Bizkaiko Foru  
Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroko datuen baliagarritasunaren  
Zinpeko Aitorpenaren Eredua**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid  
uneko NANarekin , ..... helbidea eta  
.....IFZ daukan ..... izeneko  
enpresaren ordeaz,

**KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN  
DU**

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru  
Aldundiko Lizitatzailen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren  
datuen baliagarritasuna eta indarraldia, batez ere, Sektore Publikoaren  
Kontratuen 30/2007 Legearen 49. Artikuluari dagozkionak.

Sinatuta:  
NAN:





**V ERANSKINA  
KAUDIMEN EKONOMIKOA**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid  
uneko NANarekin , ..... helbidea eta  
.....IFZ daukan .....izeneko enpresaren ordezt,  
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen  
ekonomikoari begira,

**ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:**

Enpresaren negozioen kopurua azken hiru urtetan ondokoa izan dala:

**2005. Urtea**

| XEDEA | BEZEROA | DATA | PREZIOA | ZIURTAGIRIA |
|-------|---------|------|---------|-------------|
|       |         |      |         |             |
|       |         |      |         |             |
|       |         |      |         |             |

**2006. Urtea**

| XEDEA | BEZEROA | DATA | PREZIOA | ZIURTAGIRIA |
|-------|---------|------|---------|-------------|
|       |         |      |         |             |
|       |         |      |         |             |
|       |         |      |         |             |

**2007. Urtea**

| XEDEA | BEZEROA | DATA | PREZIOA | ZIURTAGIRIA |
|-------|---------|------|---------|-------------|
|       |         |      |         |             |
|       |         |      |         |             |
|       |         |      |         |             |

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa frogatuta  
gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2008ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:



## VI ERANSKINA KAUDIMEN TEKNIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid  
uneko NANarekin , ..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordez,  
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen  
ekonomikoari begira,

### ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

1. Azken hiru urtetan empresa honek egindako lanak ondokoak izan direla:
  - 2005. Urtea
  - 2006. Urtea
  - 2007. Urtea
2. Kontratua betetzeko gure esku dauden unitate teknikoak ondokoak direla:
3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak direla:
4. Enpresaren baliabide pertsonalak ondokoak direla:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen teknikoak frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2008ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



**VII. ERANSKINA:  
MINUSBALIADUN LANGILERIARI BURUZKO AITORPENA.**

.....J<sup>a</sup>/A<sup>a</sup>.....NAN zenbakiduna,  
.....zenbakiduneko IFK daukan .....enpresaren ordeaz eta  
izenean,

**Erantzunkizunpean, Adierazten dau:**

1.- Agiri honeek aurkezteko datatz, goian aipatutako enpresak ondorengo langile kopuru eta motak daukazala:

- MINUSBALIADUN langileen kopurua, guztira:.....

- Enpresaren plantilakoak diranak eta besteren kontura lan egiten daberen lagileen kopurua, autonomoak eta bere kontura lan egiten daberen langileak bastertuta, guztira: .....

- Enpresaren plantilako langile guztien artean, MINUSBALIADUN langileek suposatzen daberen portzentaia, autonomoak edota bere kontura lan egiten daberen langileak bastertuta, guztira: .....

Aitorpen hau kreditatzeko asmoagaz, administrazio honek Enpresa lizitatzailerari eskatzen deutsozan agiri guztiak entregatzeko konpromezua hartzen dau.

Bermeon, 200...ko .....aren .....an.

Sinatuta:  
NAN:

